# Afiliazioaren hazkundea zertxobait areagotu zen otsailean

Gizarte Segurantzako afiliazioaren urte arteko konparazioak positiboa izaten jarraitu zuen 2019ko otsailarekin alderatuta, baita urtarrilekoa baino pixka bat handiagoa ere. Zehazki, haren aldakuntza tasa %1,8koa izan zen; hala, 973.152 kotizatzaile zeuden EAEn, hau da, duela hamabi hilabete baino 17.354 pertsona gehiago. Kopuru horretan, gogora ekarri behar da hil honetako 8.287 zaintzaile ez-profesionalak ere sartzen direla, apirilaz geroztik kopurua handitu egin baitzen, zeren eta, une horretan, Estatuak kolektibo horren kotizazioak, senideak zaintzeagatik, berriz hartzea erabaki zuen. Kolektibo hori gehienbat emakumeek osatzen dute; beraz, kontuan hartu ezean, urte arteko aldakuntza tasa ia erdira jaitsiko litzateke, %2,9tik %1,5era.

## GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

OTSAILEKO AFILIAZIOA

+%1,8




## GIZARTE SEGUNRANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




## GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## AFILIAZIOA INDUSTRIAN
Urte arteko aldakuntza tasa




## AFILIAZIOA ZERBITZUETAN
Urte arteko aldakuntza tasa




Jarduera adarren bilakaerari dagokionez, zenbait adarretan urte arteko erregistro negatiboak jaso ziren. Horietako bat manufakturen industria da, hain zuzen ere afiliatu gehien biltzen dituena. Era berean, merkataritza nabarmentzen da emaitza negatiboen artean, okupazio handiena duen bigarren jarduera izanda , azken hamabi hilabeteetan 500 afiliatu inguru galdu dituelako. Aitzitik, osasun arloko jarduerek goranzko joerarekin jarraitu zuten, eta dagoeneko 100.000 afiliatu baino gehiago daude adar horretan, lehen aipatutako zaintzaile ez-profesionalak talde horretan baitaude.

### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

| | 2019ko otsaila | 2020ko otsaila | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| **AFILIAZIOA GUZTIRA** | **955.798** | **973.152** | **17.354** |
| Industria manufakturagileak | 175.956 | 174.503 | -1.453 |
| Merkataritza | 137.069 | 136.564 | -505 |
| Osasun arloko jarduerak | 94.409 | 104.637 | 10.228 |
| Hezkuntza | 74.613 | 76.632 | 2.019 |
| Ostalaritza | 65.463 | 67.214 | 1.751 |
| Administrazio jarduerak | 65.017 | 65.436 | 418 |
| Eraikuntza | 56.380 | 57.418 | 1.039 |
| Lanbide jarduerak | 56.150 | 57.437 | 1.286 |
| Administrazio publikoa | 48.208 | 49.637 | 1.429 |
| Garraioa | 41.796 | 42.558 | 762 |
| Etxeko langileak | 30.252 | 29.590 | -662 |
| Bestelako zerbitzuak | 28.540 | 28.393 | -148 |
| Informazioa eta komunikazioa | 22.822 | 23.312 | 490 |
| Finantza jarduerak | 18.080 | 17.792 | -288 |
| Jarduera artistikoak | 16.547 | 17.423 | 876 |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 12.168 | 12.030 | -137 |
| Or horniketa | 5.896 | 6.281 | 385 |
| Higiezinen jarduerak | 4.003 | 4.161 | 158 |
| Energia horniketa | 1.817 | 1.520 | -297 |
| Erauzketa industriak | 556 | 558 | 2 |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 58 | 59 | 1 |

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.